

BATZORDE IRAUNKORRAREN BARNE-ARAUDIA

I. TITULUA.- ERREGELAMENDUAREN HELBURUA ETA APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

1. Artikulua.- Helburua.

Erregelamendu honek "Fundación Bancaria Vital - Vital Banku Fundazioaren" ("Banku Fundazioa") Batzorde Iraunkorraren funtzionamendu-araubidea arautzea du xede.

2. Artikulua.- Interpretazioa.

1. Erregelamendu hau lege- eta estatutu-arauen arabera eta gobernu korporatibo onari buruz aplikagarri zaizkion printzipio eta gomendioen arabera interpretatuko da.

Nolanahi ere, Banku Fundazioaren Patronatuak egiten duen interpretazioa loteslea izango da.

2. Erregelamendu honetan eta Banku Fundazioaren Estatutuetan ezarritakoaren artean desadostasunik balego, edozein kasutan, Estatutueta xedatutakoa nagusituko da.

3. Artikulua.- Aldaketa.

1. Erregelamendu hau Banku Fundazioaren Patronatuaren erabakiz aldatu ahal izango da, berak edo Batzordeak eskatuta.

2. Aldaketa-proposamenarekin batera, justifikazio-memoria bat aurkeztu beharko da.

3. Erregelamendu honen aldaketa aztertu behar duen Banku Fundazioaren Patronatuaren bilerarako deialdiarekin batera, proposamenaren eta justifikazio-memoriaren testuak erantsi beharko dira.

4. Erregelamendu hau aldatzeko, Banku Fundazioko Patronatuko kideen gehiengo osoz hartutako erabakia beharko da, nahitaez bete beharreko araudiak ezarritako aldaketak direnean izan ezik.

4. Artikulua.- Hedapena.

1. Batzordeko kideek Erregelamendu hau ezagutu, bete eta betearazteko betebeharra dute. Horretarako, Batzordeko Idazkariak haren ale bana emango die karguak onartzen dituztenean, edo erregelamenduaren aldaketaren bat gertatzen denean, eta adierazpen sinatu bat eskatuko du, Erregelamenduaren edukia

ezagutzen eta onartzen dutela adierazteko, eta eska dakizkiekeen betebeharrak guztiak betetzeko konpromisoa ere adieraziko dute.

2. Banku Fundazioaren Patronatuak neurri egokiak hartuko ditu Erregelamendu honek hedapen publikoa izan dezan. Halaber, Erregelamenduaren indarreko testua webgune korporatiboan egongo da eskuragarri.

II. TITULUA.- BATZORDEAREN EGINKIZUNAK

5. Artikulua.- Eginkizunak.

Patronatuak eskuordetzen dizkion eginkizunez gain, Batzorde Iraunkorrak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Banku Fundazioak, oro har, eta Gizarte Ekintzak, bereziki, hurrengo ekitaldian garatuko dituzten jardueri buruz Fundazioaren Presidenteak egindako urteko jarduera-plana aztertzea eta berrikustea, Patronatuak aztertu eta onar dezan.

b) Banku Fundazioaren politikaren eta/edo funtzionamendu-araubidearen ildo orokorrak aztertzea eta ezartzea.

c) Vital Fundazioetako Presidenteak eta Zuzendari Exekutiboak egindako urteko Memoria, Balantzea, Eraitzen Kontua eta Banaketa-proposamena aztertzea eta berrikustea, Patronatuak aztertu eta onar ditzan.

d) Vital Fundazioetako Presidenteak eta Zuzendari Exekutiboak egindako Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena aztertzea eta berrikustea, Patronatuak aztertu eta onar dezan.

e) Vital Fundazioetako Presidenteak eta Zuzendari Exekutiboak egindako Banku Fundazioaren aurrekontuak aztertzea eta berrikustea, Patronatuak aztertu eta onar dezan.

f) Langileak kontratatzeko eta Banku Fundazioari zerbitzuak ematen dizkieten enpresa, elkarte eta partikularrekin kontratuak eta hitzarmenak sinatzeko ildo orokorrak aztertzea eta ezartzea.

g) Onuradunekin kontratuak eta lankidetzak-hitzarmenak egiteko eta sinatzeko baimena ematea, Patronatuak aztertu eta onar ditzan.

h) Administrazio Publikoekin era guztietako kontratuak eta hitzarmenak egiteko eta sinatzeko baimena ematea, Patronatuak aztertu eta onar ditzan.

III. TITULUA.- BATZORDEAREN OSAERA ETA EGITURA

6. Artikulua.- Osaera.

1. Banku Fundazioko Patronatuak izendatuko ditu Batzordeko kideak, bere kideen artetik. Batzordearen osieran jakintzaren eta generoaren aniztasuna eta dibertsitatea errespetatzeko neurriak hartuko dira, kideen gaitasun teknikoa eta esperientzia profesionala kontuan hartuta.

Nolanahi ere, Patronatuko Presidentea eta presidenteordea Batzordeko kide izango dira.

2. Batzordeko kideek, Banku Fundazioaren Patronatuko kide diren aldetik, baldintza hauek bete beharko dituzte: ohoragarritasun komertziala eta profesionala, ezagutza eta esperientzia egokiak, eta gobernu ona burutzeko prest egongo dira, betiere legedian, Banku Fundazioaren Estatutuetan eta Erregelamendu honetan ezarritakoarekin bat etorritz.

7. Artikulua.- Presidentea.

1. Batzordeko presidentetza Patronatuko presidentetza duenari dagokio, eta hurrengo 2. atalean jasotako eginkizunak eta ahalmenak izango ditu, baita Batzordeak berak agintzen dizkionak ere.

2. Presidentearen eginkizunak dira:

a) Batzordeari datei eta aztertu beharreko gaien buruzko programazioa aurkeztea, eta batzordekideek gai-zerrenda egiten parte har dezaten saiatzea.

b) Bilkuretarako deialdia egitea eta bilkuretako buru izatea, kideek behar besteko aurrerapenez behar duten informazioa dutela, gai estrategikoak eztabaidatzeko denbora nahikoa dutela eta eztabaidetan parte hartzeko aukera dutela ziurtatuz, eta, horretarako, kideen arteko elkarreragina sustatuz.

c) Batzordeak hartzen dituen erabakiei buruz Idazkariak luzatzen dituen ziurtagiriak ontzat ematea.

d) Batzordeak berak eskuordetzen dizkion guztiak.

8. Artikulua.- Presidenteordea.

Batzordeko Presidenteordea Banku Fundazioaren Patronatuko Presidenteordea izango da, eta hala jardungo du presidentetzako titularra ez dagoenean.

9. Artikulua.- Idazkaria.

1. Batzordeko Idazkaria Banku Fundazioaren Patronatuko Idazkaria ere izango da.

2. Idazkariaren eginkizunak dira:

a) Batzordearen bilkuretarako joatea, eta bilkura horietan hitza izango du, baina botorik ez.

b) Bilkuren akta idatzi eta sinatzea, eta Batzordeburuak ere sinatuko du.

c) Presidenteari bere eginkizunetan laguntzea.

d) Batzordeak behar bezala funtziona dezan begiratzea, kideei beharrezko aholkularitza eta informazioa emanez, dokumentazio soziala gordez, bileren garapena aktetan behar bezala islatuz eta Batzordearen erabakien fedea emanez, ziurtagiriak jaulkiz.

e) Batzordearen jardura eta erabakietan aplikagarri diren gobernu onaren gomendioak kontuan hartzen direla zaintzea.

3. Batzordeko Idazkariak beti zainduko du Batzordearen jarduketan legezko tasun formala eta materiala, eta bermatuko du haren prozedurak eta gobernu-arauak aldian-aldian errespetatu eta berrikusiko direla.

4. Idazkaria bilkurara bertaratu ez bada, Batzordekide gazteenak jardungo du haren ordean.

10. Artikulua.- Karguaren iraupena.

Batzordeko kideak Banku Fundazioaren Patronatuko kide izateko geratzen zaien aldirako izendatuko dira.

11. Artikulua.- Kargu uztea.

Batzordeko kideek honako kasu hauetan baino ez dute utziko beren kargua:

a) Karguari uko egin diotelako.

b) Banku Fundazioaren Patronatuko kide izateari uzten diotenean.

12. Artikulua.- Mugak, eginbeharrak eta betebeharrak.

Batzordeko kideek, Banku Fundazioaren Patronatuko kide diren aldetik, kargu horiek eragiten dizkieten muga, eginbehar eta betebehar berberak izango dituzte, eta bereziki gardentasunez, arretaz, leialtasunez eta interes-gatazkarik gabe jardun beharko dute.

13. Artikulua.- Ordainsaria.

Batzordeko kide kargua doakoa izango da, bere eginkizunak betetzean sortzen diren gastuak itzultzeari kalterik egin gabe, betiere behar bezala justifikatuta badaude.

Hala ere, Banku Fundazioaren Patronatuak zenbateko finko bat zehaztu ahal izango du bertaratze-gastuak konpentsatzeko dieta gisa, bere eginkizunak betetzean sortzen diren gastuak konpentsatzeko. Kasu horretan, Batzordeko kideak bi aukera izango ditu: bere kargua betetzeak eragindako gastuei dagokiena jasotzea edo bertaratze-gastuak konpentsatzeko dietari dagokiona jasotzea.

IV. TITULUA.- FUNTZIONAMENDU-ARAUBIDEA.

14. Artikulua.- Bilkuren tokia, aldizkakotasuna eta iraupena.

1. Bere eginkizunak behar bezala betetzeko behar besteko maiztasunez bilduko da Batzordea eta Banku Fundazioak behar bezala funtziona dezan, eta, gutxienez, urtean bitan.

2. Batzordea Banku Fundazioaren egoitzan edo, hala badagokio, bilera-deialdian agertzen den Arabako Lurralde Historikoko tokian bilduko da.

3. Batzordearen bilerak bideokonferentzia bidez, telefono-konferentzia anizkoitz bidez edo beste edozein bitarteko edo prozedura telematikoren bidez egin ahal izango dira, bertaratzen diren pertsonak ezagutzea edo identifikatzea ahalbidetzen badu, baita parte hartzea, eztabaidatzea eta denbora errealean botoak ematea ahalbidetzen badu ere. Kasu horretan, Batzordeko Idazkariak bertaratutakoen nortasuna aitortu beharko du, eta hala adierazi bileraren aktan, zeina Fundazioaren egoitzan egin dela ulertuko baita. Hala ere, bilera aurrez aurre egin beharko da, baldin eta Batzordeko kide gehienek adierazten badute bilera telematikoki egitearen aurka daudela, bilera-deialdia jaso eta hurrengo 48 ordu naturalen barruan.

4. Gai-zerrendan aurreikusitako gai guztiak aztertu eta eztabaidatu ahal izateko behar besteko iraupena izango dute Bilkurek.

15. Artikulua.- Bilkuren deialdia eta dokumentazioa.

Bilkuren deialdia Presidenteak edo bere eginkizunak betetzen dituenak egingo du, eta kide guztiek deialdia jasoko dutela ziurtatzeko moduko baldintzetan egingo da. Deialdian bilera-lekua, eguna eta ordua adieraziko dira, baita aztertu beharreko gai-zerrenda ere. Gai-zerrenda osatzen duten puntuei buruzko dokumentazioa Batzordeko kideen eskura egongo da organo horretako idazkaritzan.

16. Artikulua.- Bilkuretan parte hartzea eta quoruma.

1. Batzordea behar bezala eratuta geratuko da kideen gutxienez bi herenak bertaratzen direnean, bertaratuak edo ordezkatuak.

2. Batzordeko kideek ahal duten guztia egingo dute bilkuretara joateko, eta ezinbesteko kasuetara mugatuko dute ez bertaratzeko aukera.

3. Batzordeko kideek Batzordeko beste edozein kide eskuordetu ahal izango dute, idatziz, bilkura bakoitzerako, bilkura horretan ondorio guztietarako ordezkaria ditzan. Batzordeko kide berak hainbat ordezkaria izan ditzake.

4. Batzordearen bileretara joango dira eta hitza izango dute baina botorik ez:

- Vital Fundazioen zuzendari exekutiboak.

- Batzordeko Idazkaria.

- Batzordeko Presidenteak, Vital Fundazioetako zuzendari exekutiboak edo Batzordeak berak hala eskatzen dutenean, gai zehatzetarako aholkulari joan daitezke hartu beharreko erabakiak hobeto oinarritzeko komenigarritzat jotzen diren teknikariak ere, eta eskatzen zaizkien gaietara mugatuko dituzte beren esku-hartzeak.

17. Artikulua.- Bilkuren garapena.

1. Bilkuretako buru Presidenteak izango da.

2. Presidenteak antolatuko du eztabaida, Patronatuko kide guztiek eztabaidetan parte har dezaten saiaturik eta sustaturik, eta horretarako behar den denbora emanaz.

3. Batzordearen bilkuran deialdiko gai-zerrendako gaiak baino ezin izango dira aztertu, Batzordeko kide guztiak bertan egonda aho batez aztertzea erabakitzen diren gaiak izan ezik.

4. Batzordearen erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira, aplikatzeko den araudiak gehiengo kualifikatua aurreikusten duen kasuetan izan ezik. Batzordeko Presidenteak, edo haren ordezkariak, boto erabakitzailea izango du berdinketa gertatuz gero.

5. Bozketak izendunak izango dira, Batzordeak berak isilpekoak direla erabakitzen duenean izan ezik.

6. Batzordearen eztabaidak eta erabakiak, baita emandako dokumentazioa ere, isilpekoak izango dira, eta ez kideek eta ez bileretara bertaratutakoek ezin izango dizkiote inori jakinarazi, Banku Fundazioaren Patronatuari izan ezik. Arau hori urratzea bidezko arrazoia izango da kidea hori banantzeko, bidezkoak izan daitezkeen bestelako erantzukizunei kalterik egin gabe.

7. Hartutako erabakiak arauzko bideetatik helarazi eta betearaziko dira.

8. Batzordeko kideek ez dute parte hartuko beraiei pertsonalki eragiten dieten erabakiei buruzko eztabaidetan eta bozketetan, ezta legez edo estatutuaren aurreikusitako interes-gatazka kasuetan ere.

18. Artikulua.- Bilkuren aktak.

1. Idazkariak bilera bakoitzaren akta idatziko du, eta bertan, gutxienez, honako hauek zehaztuko dira:

a) Deialdiaren baldintzak, bertaratutakoen zerrenda eta quoruma, deialdiaren eta bileraren baliozkotasuna ikusi ahal izateko moduan.

b) Landutako puntu bakoitzean: aztertutako gaiaren laburpen egokia, jasota gera daitezela eskatzen den esku-hartzeen laburpena, ondorioak, gomendioak eta kontrako iritziak, halakorik balego, eta hartutako erabakiak, zein gehiengorekin hartu diren zehaztuta eta, hala badagokio, aurkako botoak edo boto partikularrak adierazita.

c) Akta onartzeko baldintzak.

2. Bilkuraren akta Batzordeak berak onartuko du bilera amaitzean edo hurrengo bileraren hasieran, eta Presidenteak eta Idazkariak sinatu beharko dute.

3. Batzordearen bilkuren aktak Banku Fundazioaren Patronatuaren akta-liburuari erantsiko zaizkio.

19. Artikulua.- Proaktibitatea eta interakzioa.

1. Batzordeko kideek proaktiboak izan behar dute bilkura bakoitzeko gai-zerrenda osatzerakoan, landu beharreko gaiak iradokiz eta horiek behar bezala aztertzeko behar den informazio guztia eskatuz.

2. Batzordeko Idazkariak zainduko du bilkuretako gai-ordenek bere eskumeneko gai guztiak bete ditzaten.

3. Batzordeko Presidenteak bereziki bultzatuko du Batzordeko kideen arteko interakzioa, eztabaiden kalitatea, bat ez datozen ikuspuntuen adierazpena eta eztabaida eta eztabaidatu beharreko gaiak modu independentean zalantzan jartzeko gaitasuna bermatzeko.

"Fundación Bancaria Vital - Vital Banku Fundazioaren" Patronatuak aho batez onartu zuen testua, 2018ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, eta aho batez aldatu zen 2020ko maiatzaren 14ko eta 2020ko azaroaren 26ko bileretan.